

Kantuz, Txistulari Banda, Tronpeta Bikotea eta Haizebeltz 'Musika Hamabostaldiko' inaugurazioan

■ Txillida Lekun izango dira inaugurazioko ekitaldi batzuk eta XXgarren mendeko Musika Zikloko zenbait kontzertu ere bai ■ 'Hamabostaldia' atzo aurkeztu zuten.



Goian, Kantuz Abesbatza eta Txistulari Banda. Behean, Haizebeltz taldea.

HIRUROGEITA bigarren Musika Hamabostaldiak Hernani erdiz erdi harrapatuko du. Eta hernaniarren ahots eta instrumentuek inaugurazioan izango dute musika klasikoaren jaialdi sonatu horretan luzitzeko aukera.

Musika Hamabostaldia abuztuaren 6an hasiko da. Lehen kontzertua, berez, Kontxako uretan egingo dute, itsasontzian. Hernaniarren txanda arratsaldean etorriko da, Musika Hamabostaldiak Eduardo Txillidaren museoan antolatatu duen ekitaldian. Inaugurazio egunerako 6 kontzertu daude Zabalagan eta horietatik 4 hernaniarrek emango dituzte.

Egitarauko ordenaren arabera, *Lauhots* laukoteak za-

balduko du *Txillida Leku*-ko ekitaldia eta *Haizebeltz* da joko duen lehen herriko taldea. Atzetik, *Txistulari Banda* eta *Tronpeta Bikotea* etorriko dira eta *Kantuz Abesbatzak* itxiko du ekitaldia. Kontzertuak zortzietan hasiko dira. Sarrera, debalde.

XX. MENDEKO MUSIKA ZIKLOA

Musika Hamabostaldiak aspalditik antolatzen ditu kontzertu bereziak Donostiatik kanpora. *Txillida Lekun* inaugurazio ekitaldiaz gain, XXgarren mendeko Musika Zikloko kontzertuak dira Musika Hamabostaldiak Zabalagara ekarriko dituenak. Emanaldiak abuztuaren 22tik 25era izango dira eta hauxe da egitaraua:

Steffen Scheiermacher, Ignacio Rodes, Cuarteto Wihan eta Quinteto de Viento Pablo Sorozabal.

VERDI, MAHLER ETA MOZART, ARDATZAK

Giuseppe Verdiren heriotzaren urteurrena betetzen den honetan, hiru konpositore horiek dira aurtengo Musika Hamabostaldiaren ardatz nagusia. Arantzazuko santutegiak ere protagonismo berezia du edizio honetan, santutegiak bosgarren mendurrena betetzen baitu aurtien.

Iaz bezala, aurtien ere Kursaa-lean izango dira ekitaldi gehienak. Sarrerak, Kursaa-lean abuztuaren 9tik aurrera. Informazio gehiago www.quincenamusical.com. □

Aranon bihar hasiko dira herriko festak

■ 12:00etan botako du txupinazoa Iñigo Larrea alkateak ■ Gaur Mus Txapelketa elkartean, 22:30etan.



Arano pronto dago festak hasteko.

ARANON dena pronto dago Santio jaiak hasteko. Herritarra ez ezik, urtero bezala, hernaniarrak asko bisitatuko du auzoko herria.

mutilak: Haritz-Mikel/Jabi-Joselu. Eskuz, Xabier-Gorka/Tutu-Iturbe (aurten elkarren kontra hirugarren finala dute eta oraingoz bana dijoaz).

BOST EGUNEKO JAIAK

Txupinazotik hasita, bost egunetako jaiak dituzte aurtien Aranon. Larunbatean, hasteko, pelota txapelketetako finalak, oilasko jatea, *Non Stop* jaia eta *Muxutruk* taldearekin gaupasa dute aukeran.

OILASKO JATEA

Festak gorputz onarekin hasteko, larunbat gauean oilasko jatea dute San Roke elkartean. Txartelak herriko tabernetan daude salgai 2.500 ptan, eta gaur da hartzeko azken eguna.

28 BIKOTE PELOTAN

Pelota txapelketek jende asko mugitu du. Eskuz eta palaz 28 bikote aritu dira. Finalak bihar 17:00etan jokatu dituzte eta honako hauek ari-tuko dira elkarren kontra. Palaz, neskak: Rosa Mari-Jai-one/Maitane-Lourdes. Palaz,

IGANDEA, UME EGUNA

Igandean ume eguna da. Goizeko 10:00etarako hasiko da festa. 11:00etan meza eta gero pelota partiduak. 18:00etan, Gorriti eta bere animaliak, 19:00etan txokolata, eta igandeko festa bukatzeko Eriz magoa egingo ditu bereak herriko plazan. □

ASTEARTEA 24

20:00: Herri meza.
20:30: Doinu-zale.

ASTEAZKENA 25

10:00: Goizsoinua
11:00: Herri meza
12:30: Pelota. Arano-Goizueta.
18:00: Herri kirolak. Saralegi anai-arrebak eta Kristina eta Rekondo aizkolariak.
19:30: Bertsolariak: Egaña, Men-


diluze, Irazu eta Osa. Gai jartzen,

Legarreta

20:30: Trikitixa: Leire eta Itxaso.

OSTEGUNA 26

10:00: Goizsoinua
11:00: Herri meza, jubilatuentzat.
12:30: Pelota partiduak.
14:00: Bazkaria Herriko Etxea ostatuan, Agirre-Lazkano bertsolariak eta Leire-Itxaso trikitilari-ekin.



JAYREGI

JATETXEA

Oporren ondoren berriro ere egunero zabalik
(astelehen iluntzean itxita)

Ezkontzak, bataioak, bazkariak, despedidak,...

Jauregi bailara 29 - Tel: 943 55 00 34 / 943 33 04 24 - 20120 Hernani

Oier Mendizabal lehen finalista Hernaniko Lauterdiko Txapelketan

■ 22-10 irabazi zion Unai Alvarez finalerdia ■ Jagoba Yuberok, finalerdia jokatu du Ion Elizalderi 22-9 irabazita ■ Bigarren finalerdia Jagoba Yubero-Ion Zabala.



Jagoba Yubero sarea egiten asteazken ilunabarrean.

ASTEAZKEN ilunabarrean jokatu ziren Hernaniko 4 1/2ko Txapelketaren lehen finalerdia eta azken final laurdena. Finalerdian Oier Mendizabalek 22-9 irabazi zion Unai Alvarez. Honela, Oierrek finalerako txartela eskuratu du. Final laurdenean berriz, Jagoba Yubero 22-10 nagusitu zitzaion Ion Elizalderi. Jagoba Yuberok orain Ion Zabalaren aurka jokatu beharko du finalerdia. Partidu hau noiz jokatu den oraindik ez da erabaki, baina seguruenik datorren astelehen edo asteartean izango da. Irabazleak Oier Mendizabal izango du kontrario, uztailak 28an jokatu den finalean. □

Hernaniko umeak Hendaiaiko udalekuarekin e-mailez harremanetan

■ Informatika Aretoko ordenagailuetan dute interneten ibiltzeko aukera.



Udalekuetako haurrak atzo Informatika Aretoran, Hendaiaikoekin harremanetan jartzen.

UDALEKUETAKO umeak asteazken eta ostegunetan, Informatika Aretora (IMI) etortzen dira. Hor, internet bidez, Hendaiaiko udalekuetako umeekin jartzen dira harremanetan,

eta hango eta hemengo gorabeherak kontatzen dizkiete elkarri. Atzo, *Jongarrek* banan banan denei argazkia atera eta Hendaiaiko beren lagunei bidali zizkieten, e-mailez.

UR EGUNA

Ostiralero bezala, egun berezia dute udalekuetan. Gaur, *Ur eguna* dute talde guztiek. Eguraldi ona bada 11:30etan plazan, bestela Laubidietan. □

TXIRRINDULARITZA

Zikuñagako Ama-ko zikloturistak Ruta del Vino eta Orexara dijoaz asteburu honetan

■ Datorren astean Indurain proba korrituko dute, Beran.

ZIKUÑAGAKO Ama Elkar-teko zikloturistak aurtan ere ari dira kilometro pillak egiten. Denboraldia martxoan hasi zutenetik 20 irteera egin dituzte eta 1.400 kilometrotik gora. Urrian denboraldia bukatzerako oraindik beste 11 irteera egingo dituzte, guztira gutxi-gorabehera 2.153 km osatzeko.

Hamasei bat lagun dira Zikuñagako Ama Elkartean, denboraldi guztian hara eta hona bizikletan ibiltzen direnak. Denboraldia martxoan hasten dute eta abuztua deskatsua hartuta, urria azkena arte asteburuero egiten dute ibilbideren bat.



Hernanin badago afizioa.

goa egin nahi duenarentzat.

ZITA BIKOITZA

Datozen bi asteburuetan, Elkar-teko kideek bi aukera izango dituzte. Igandean, uztailak 22, batzuk Orexara joango dira, 94 km-ko irteera egiteko. Beste batzuk ordea, urutiago dijoaz, Zaragozara. Han "La Ruta del Vino" izena duen itzulia egingo dute, 145 km osatzeko. Beraz, bi aukera dituzte, inguruan rekorrido motzagoa egin nahi duenarentzat eta urutiago bide luzea-

INDURAIN PROBA

Hurrengo asteburuan ere, (uztailak 29) aukera berdintsua dute. Nahi dutenek Donibane Lohitzunera joan daitezke, 86 km egiteko edo, bestela, Beran egiten den Indurain Proba egitera joan.

Indurain Probak bi ibilbide ditu: 106 km-koa eta, bestea, 179 km-koa. *Zikuñagako Amak* Kronikari esan dionez, hernaniarrek ibilbide laburra egitekoa dute. □

Berriak elkarteak zozketa bat jarri du martxan

■ BERRIAKek zozketa berria hasi du. Kontua da azken aldizkarian merkatari eta hostalari elkarte horren logotipoa zenbat ateratzen den asmatzea. Saria: 25.000 pta, Berriakeko dendetan gasatzeko. Zozketan sartu nahi duenak, bidali erantzunak helbide honetara: Hernaniko 165 Posta Kutxatilara, edo e-mailez: berriak-hernani@infonegocio.com. Gaur da azken eguna. □

HERIOTZAK

Jose Manuel Erkizia Zabala
Asteazkenean hil zen 56 urte zituela.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093
►Udaltzaingoa: 943 333288
►DYA: 943 464622
►Autobusak 943 556662
►Anbulatorioa: 943 557750
►Jokalari anonimoak 943 331103

✚ FARMAZIAK

►Eguez: Chucla
Kardaberaz 28
☎ 943 551793
►Gaez: Diaz
Andoain, Nagusia 19
☎ 943 592057

IRAGARKI MERKEAK

■ Pisu eguzkitsua salgai Hernanin 19 milioietan. Interesik duenak **655. 72 25 19** telefonora dei ezazue. Agentzietakoek ez deitu.

SANSONATEGI

HERNANI GIPUZKOA



TFNOA - FAXA: 943 553 260

JATETXEA
SAGARDOTEGIA



mikel armendariz
proiektu eta instalazio
elektrikoak

Tel. 649 846 422
HERNANI



MUEBLES HERNANI

DENDA IXTERA GOAZ.

LIKIDAZIOAREN AZKEN EGUNAK
Altzariak Beherapen haundiagoarekin.

Astelehenetik Ostiralera 16:30etatik 19:30etara
eta Larunbatetan 10:30etatik 13:00etara Zabalik.

HERNANI ALTZARIAK, Gartzia Goldaraz 8 HERNANI